

<p>Apirilak 1 Maiatzak 4ra arte</p>		<p>Ermua Hiria XIII. Literatur saria Literatur lehiaketa honek narratiba eta olerki modalitateak ditu, modalitate bakoitzeko irabazleak sari ederra hartuko du. Informazio gehiago eta oinarriak Udal Liburutegian.</p>	<p>LEHIAKETA UDAL LIBURUTEGIA</p>
<p>Apirilak 2 Apiriletik aurrera</p>		<p>Aisa harrera ikastaroak / Cursos de euskera Curso de acogida lingüística para personas inmigrantes que comiencen el aprendizaje de euskera. Más información: Euskaltegi Municipal, Departamento de euskera y Acción Social del Ayuntamiento de Ermua.</p>	<p>IKASTAROA MATRIKULAZIOA UDAL EUSKALTEGIA</p>
<p>Apirilak 2 Astelehena <i>Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna</i></p>		<p>Antton Irusta Ipuinek, duten liluraz gain, bitamina berezi bat dute, indarrak eta gogoa berpizten dituen, kezkatzen gaituena gainditzeko adorea ematen diguna. Adina: 5-12 urte</p>	<p>IPUIN KONTALARIA LIBURUTEGIA</p>
<p>Apirilak 10 Apiriletik aurrera</p>		<p>Sareko euskarazko produktuen katalogoa Interneten ageri diren euskarazko produktuei buruzko informazio guztia katalogo batean!. Berau doan lortu nahi baduzu jo ezazu Udal Euskara Sailera eta ale bat eskuratuko duzu.</p>	<p>KANPAINA ALKARBIDE</p>
<p>Apirilak 13-14-15 Asteburua</p>		<p>EUTSI!! Lan egoera dela eta, greban dago txirrinak egiten dituen Saldix Corp. lantegia. Langileak estu eta larri dabilta, tentsioa igartzen da. Aldarrikapenak Tourrera eramango ditu gure protagonistak.</p>	<p>ZINEA KULTURA</p>
<p>Apirilak 16 Apiriletik aurrera</p>		<p>Txikiekin euskaraz Umeak zaintzeko edota euskaraz klase partikularrak emateko begirale euskaldunen zerrenda osatu behar dugu. Informazio gehiago izateko Euskara Sailera jo. Ermuko Udala. Euskara Saila. Telf.: 943 179 147</p>	<p>KANPAINA EUSKARA SAILA</p>
<p>Apirilak 19 Osteguna</p>		<p>¿No entiendes a tu hij@? Ana Urrutia nos contará su experiencia como madre de niños bilingües y Xabi Paya como hijo cuyos padres no saben euskera. Habrá servicio de guardería. Euskal Birusa, euskaltegi eta ikastetxeek antolatua.</p>	<p>SOLASALDIA BERBETAN</p>
<p>Apirilak 19-26 Maiatzak 3 Osteguna</p>		<p>Euskal Dantzak-II: Larraindantza Larraindantza ikasteko aukera paregabea. Hemendik aurrera ez da egongo aitzakiarik jaietan dantzarik ez egiteko. Doan. Izena ematea, tel.: 639 414 205</p>	<p>IKASTAROA BERBALAGUN</p>
<p>Apirilak 21 Larunbata</p>		<p>Ermua ezagutzuz Herria bera ezagutzeko herrian bertan ibiltzea baino hobetik ez dago. Berbalagunekoek kalerik kale ibiliz, gure herriko txokorik ederrenen historien berri jasoko dute.</p>	<p>PASEOTXOA BERBALAGUN</p>
<p>Apirilak 23tik Ekainaren 22ra</p>		<p>Irakurri, gozatu eta oparitu Euskaraz irakurtzeko kanpaina honen bidez euskaraz dauden libururik interesgarrienak irakurtzeaz gain, horiek erosi eta oparitzeko deskontuak lortu ahalko dituzue. Informazioa: Euskal Birusa / Udal liburutegia.</p>	<p>KANPAINA EUSKAL BIRUSA</p>
<p>Apirilak 27 Ostirala</p>		<p>Txikiteokide Hilero legeez, hileko azken ostiralean, euskaraz mingaina astindu nahi duen orok badu aukera, dakiena praktikatzeko, hobetzeko eta zabaltzeko. Herga tabernan hasita.</p>	<p>KALEJIRA BERBALAGUN</p>
<p>Apirilak 28 Larunbata</p>		<p>Babel mundua Babel munduak kultura desberdinek dituzten balioak eta garrantzia erakutsiko digu. 5 urtetik gorakoentzako umeentzat.</p>	<p>HAUR ANTZERKIA KULTURA</p>